


Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



TOKI ENTITATEEK TRANSIZIO ENERGE- TIKOA GAUZATZEKO LAGUNTZAK





MOVES III

2021eko Mugikortasun elektrikoari lotutako pizgarrien programa

Apirilaren 13ko 266/2021 Errege Dekretua.
Uztailaren 6ko 51E/2021 Ebazpena.

Iraunaldia: 2023ko abenduaren 31 arte.
Nafarroarentzako aurrekontua: 5.573.749 €.

Helburua: Mugikortasun eraginkor eta iraunkorra sustatzea, petrolioaren ordezeko energiek mugiarazitako ibilgailuak erosteko eta ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturak paratzeko dirulaguntzak emanez.

BARNE HARTZEN DIREN JARDUKETAK

⚡ Ibilgailu elektrikoak erostea (elektrikoak, hibrido entxufagarriak eta erregai-piladunak). IDAEn ibilgailu-basean agertu behar dira ezinbestean. Dirulaguntzek ez dute bizikleta elektrikoen erosketara barne hartzen.

⚡ Kargatzeko azpiegiturak paratzea.

ONURADUNAK

⚡ **Pertsona fisikoak:** deialdi bakoitzeko 1 ibilgailu

⚡ **Langile autonomoak:** minimis.

⚡ **Jabeen erkidegoak:** 50 ibilgailu urteko.

⚡ **Pertsona juridikoak:** 50 ibilgailu urteko.

⚡ **Toki-entitateak eta sektore publiko instituzionala:** urteko 50 ibilgailuko muga.

LAGUNTZEN ZENBATEKOA

- **Ibilgailuak erostea:** motorizazioaren, ibilgailuaren kategoriaren, TOGMaren (kg) eta ibilgailuaren salmenta-prezioko mugaren arabera.

Partikularren, autonomoen eta administrazioen kasuan, dirulaguntza hauek 7.000 € bitartekoak izan daitezke (9.000 txatarra bihurtzea barne hartuta) 3.500 kilogramoko komertzialen kasuan -N1 kategoria- eta 4.500 € bitartekoak (7.000 txatarra bihurtzea barne hartuta) turismo-ibilgailuen kasuan -M1 kategoria-.

- Kargatzeko azpiegiturak paratzea (**autonomo, partikular, jabeen erkidego eta** jarduera enpresarialik gauzatzen ez duten **toki-entitateentzat**): laguntzen bidez kostuaren % 70a ordainduko da, baldin eta ez bada espediente bakoitzeko 800.000 euroko muga gainditzen.

LAGUNTZAK % 10 AREAGOTUKO DIRA HONAKO KASUETAN (METAEZINAK)



Ezgaitasuna



5.000 bizt. baino
gutxiagoko udalerrriak



Taxiak

JARDUKETA-EPEAK

- ⚡ **NAOn argitaratzea:** 2021eko uztailak 27.
- ⚡ **Eskabideak aurkeztea:** 2023/12/31-ko 23:59ak arte.
- ⚡ **Dirulaguntza ematea:** eskabidea aurkeztu eta 6 hilabeteko epean
- ⚡ **Egikaritzea eta justifikatzea:** emakida jakinarazi eta 12 hilabeteko epean.
- ⚡ **Ordainketaren ebazpena:** justifikazioa aurkeztu eta 6 hilabeteko epean.
- ⚡ **Zuzentzea:** zuzenketa-errekerimendutik 10 egun balioduneko epean.
- ⚡ **Lanak edo erosketak hastea:**
 - Pertsona fisikoak, langile autonomoak, jabeen erkidegoak eta jarduera ekonomikorik gabeko sektore publikoko entitateak: 2021eko apirilaren 9tik aurrera.
 - Pertsona juridikoak eta jarduera ekonomikoa duten sektore publikoko entitateak: eskakizuna erregistratu eta gero.

*Laguntza hauek bateraezinak dira helburu berdina duten beste dirulaguntza edo laguntzekin, baina bateragarriak dira Nafarroako Gobernuak ibilgailu elektrikoak erosteko esleitzen dituen kenkari fiskalekin.





Energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegi-ratzeari eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeko laguntzak

121E/2021 Ebazpena, Nafarroan laguntzen deialdia onesten duena.
477/2021 Errege Dekretua, deialdia arautzen duena.

Iraunaldia: 2023/12/31 arte.

Aurrekontua: 12.000.000 € (2024ko abendura arte).

Helburua: Deialdi honen helburua da, ekainaren 29ko 477/2021 Errege Dekretuaren barruan, laguntzak ezartzea energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegi-ratzeari lotutako pizgarriak sustatzeko programak egikaritzeko, bai eta Berreskuratzeko, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan, bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeko.

JARDUKETAK

⚡ Autokontsumorako azpiegiturak egitea, biltegi-ratzearekin edo gabe, edo lehendik dauden autokontsumorako azpiegiturretan energia-iturri berriztagarrien bidez biltegi-ratzea ezartzea,

- Zerbitzuen sektorean.
- Ekonomiaren beste ekoizpen-sektore batzuetan.
- Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean.

⚡ Bizitegi-sektorean energia berriztagarri termikoko azpiegiturak egitea.

ONURADUNAK

Enpresak, erakunde publikoak eta partikularrak.

EPEAK


⚡ **Eskabideak aurkeztea:** 2023ko abenduaren 31 arte.

⚡ **Ematea:** 6 hilabete.

⚡ **Egikaritzea eta justifikatzea:** jakinarazi eta 18 hilabeteko epean.

⚡ **Ordainketa:** justifikazioa aurkeztu eta 6 hilabeteko epean.





Ekonomiaren hainbat sektoretan energia berriztagarri termikoen azpiegiturak ezartzeko pizgarrien programak betetzeko laguntzak

Abenduaren 21eko 1124/2021 Errege Dekretua.

Nafarroan deialdia argitaratzea: ED indarrean sartu eta 3 hilabetera.

Iraunaldia: 2023ko abenduaren 31 arte.

Hasiera bateko aurrekontua: 150.000.000 € (3.140.952 € Nafarroarentzat, eskariaren eta proiektuen garapen arabera areagotu daitekena). Enpresa eta proiektu berari emandako laguntzek ezingo dute inondik inora 15 milioi eurotik gorakoak izan.

Emakida-prozedura: Ebaluazio indibidualizatua (aurkezte-hurrenkeraren arabera eta aurrekontua agortu arte).

2 JARDUKETA-MOTA

1 PIZGARRIEN PROGRAMA

Energia berriztagarri termikoen instalazioak egitea industriaren, nekazaritza eta abeltzaintzaren, zerbitzuetan eta/edo ekonomiaren beste ekoizpen-sektore batzuetan.

2 PIZGARRIEN PROGRAMA

Energia berriztagarri termikoen instalazioak egitea bizilekuak ez diren eraikuntzetan, establezimenduetan eta sektore publikoko azpiegituretan.

Diruz lagun daitezkeen jarduketak: azpiegitura termiko berriztagarri berriak ezartzea, lehendik dauden eta teknologia berriztagarriak -eguzki-energia termikoa, geotermia, giro-energia (aerotermia eta hidrotermia), biomasa edo bero- eta/edo hotz-barrutiko mikrorredeak erabiltzen dituzten ekoizpen-sistemak handitu eta ordezkatzera, honako hauek hornitzeko:



Eraikinetan hotza eta/edo beroa ekoizteko aplikazio termikoak: ur bero sanitarioa, berokuntza, hoztea, igerilekuen klimatizazioa.



Tenperatura baxuko, ertaineko eta altuko aplikazioak ekoizpen-prozesuetan edo beste aplikazio termiko batzuetan.

Laguntza-eskabidea erregistratu edo, sektore publikoaren kasuan, BOEn argitaratu ondoren hasitako jarduketak onartuko dira soilik.

LAGUNTZEN ZENBATEKOA

⚡ Kostuen **% 70** sektore publikoan.

⚡ Eta **% 35** enpresa handientzat, **% 40** enpresa ertainentzat eta **% 45** enpresa txikientzat. (% 5 areagotuko da erronka demografikoko eremuetan: 5.000 biztanlerainoko udalerrietan eta 5.000 biztanle baino gutxiagoko herriguneak dituzten 20.000 biztanle arteko udalerrri ez-hiritarretan).

*1. Pizgarrien programako laguntzak bateraezinak izango dira helburu berdinerako eman litezkeen beste dirulaguntza edo laguntzekin.

2. Pizgarrien programako laguntzak bateragarriak izango dira beste programa edo tresnetako laguntzekin, baldin eta laguntza horren helburua ez bada kostu berdinak ordaintzea eta, metatuta, ez bada diruz lagundu daitezkeen kostuaren % 100a gainditzen.

LAGUNTZAK XEDE DITUEN JARDUKETAK AMAITZEKO GEHIENENKO EPEA

Hemezortzi hilabetekoa izango da, laguntza-emakidaren ebazpena jakinarazten den egunetik aurrera zenbatuta. Edo, inbertsio zuzenen kasuan, kasuan kasuko kontratua esleitu izanaren ebazpena jakinarazten den egunetik zenbatuta.

Kenkari fiskalak

Ibilgailu elektrikoa	% 30 arte	
Ibilgailu hibrido entxufagarria	% 5 arte	
Kargatzeko azpiegiturak	7.4 kW baino gutxiagoko potentzia	% 15
	7.4 eta 22 kW arteko potentzia	% 17
	22 eta 50 kW arteko potentzia	% 20
Energia fotovoltaikoa	Metatu gabe	% 25
	Metatuta	% 30
Bestelako berriztagarriak	% 15 eta % 20 artean	



Aurki...



Irabazi-asmorik gabeko entitateentzako laguntzak eta dirulaguntzak, eraginkortasun energetikoa sustatu

2022ko aurrekontua: 60.000 €.

ONURADUNAK

Irabazi-asmorik gabeko entitateak.



Toki-entitateentzako laguntzak eta dirulaguntzak, eraginkortasun energetikoa sustatu

2022ko aurrekontua: 1.000.000 €.

ONURADUNAK

Arestian deskribatutako jarduketekin lotutako inbertsioak egiten dituzten Nafarroako toki-entitateak edo Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 192.2 artikuluko tokiko zerbitzu publikoak kudeatzen dituzten erakundeak.



Eskaneatu kode hau informazio gehiagorako

KONTAKTUA

Posta elektronikoa: transicionenergetica@navarra.es

Telefona: 848 42 73 68

Informazio gehiago: transicion-energetica.navarra.es

El contenido de esta publicación tiene carácter meramente informativo; las condiciones son las publicadas en las convocatorias correspondientes.

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



Financiado por la Unión Europea
Europako Batasunak Finantzatua
NextGenerationEU

